

Pobreziaren aurkako borroka



UN PROYECTO DE:



NOVACT

CON LA FINANCIACIÓN DE:



MINISTERIO
DE ASUNTOS EXTERIORES, UNIÓN EUROPEA
Y COOPERACIÓN



Pobreziaren aurkako borroka

I. Sarrera

Eskuliburu hau "BAI BAKEARI. Gazteak bake iraunkorraren eta herritartasun globalaren alde" proiektuaren barruan dago. Agencia Española de Cooperación Internacional para el Desarrollo delakoak (Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak, AECID) finantzatu du proiektu hau, eta Movimiento por la Paz, el Desarme y la Libertad (Bakearen, Armagabetzearen eta Askatasunaren aldeko Mugimendua, MPDL) eta Instituto NOVACT de noviolencia (Indarkeriarik gabeko NOVACT Institutua) erakundeekin batera gauzatu da.

Hezkuntzako profesionalei erantzun batzuk emateko eta zalantza berriak pizteko pentsatutako bost gidalibururen multzoaren parte da. Galdera hauek dituzte profesional horiek: zer kezka edo interes duten gazteek gaur egungo bakearen mehatxuen inguruan, zer ulertzen duten hura osatzen duten elementuei dagokienez, nola mobilizatzen diren edo nola bultzatu daitezkeen, hezkuntzatik, gazteen balioak, jarrerak, ezagutzak eta trebetasunak. Tokian-tokian bakearen kulturaren protagonista eta transmisore gisa jarduteko, elkarrekin eta gogotsu pentsatzeko gai diren herritarren jarrerak, ezagutzak eta trebetasunak dira hauek.

Fundación Cultura de Paz (Bakearen Kultura Fundazioa) fundazioak MPDLren eta NOVACTen ekarpenarekin eta ikuskapenarekin egindako eskuliburu-bilduma honek Bakearen Kulturaren hainbat ardatz eraikitzaile jorratzen ditu, funtsezkoak gatazkak indarkeriarik gabe konpontzeko: genero-berdintasuna, kulturen arteko bizikidetzak, pobrezia desagerraraztea, garapen jasangarria eta ingurumen-justizia edo giza eskubideen defentsa zentzu zabalean. 11 eta 25 urte bitarteko gazteen hezkuntza-premiak, interesak eta kezkak (39 urte arteko pertsona gutxik hartu dute parte) dira gai hauen abiapuntuak. Gazte hauek Espainiako Estatuko bost lurraldetan -Cantabrian, Katalunian, Valentziako Erkidegoan, Madrilgo Erkidegoan eta Extremaduran- hezkuntza formaleko, informaleko eta ez-formaleko guneekin lotura dute, eta premiak, interesak eta kezkak aurretiazko diagnostiko-prozesu batean detektatuak izan dira. Horren emaitzak Cultura de Paz (Bakearen Kultura Fundazioa) Fundazioak egindako txosten batean jaso ziren, eta esteka honetan daude eskuragarri: https://www.mpdl.org/sialapaz/06_Informe%20de%20diagn%C3%B3stico%20final.pdf.

Egiturari dagokionez, eskuliburu hau hainbat ataletan antolatuta dago, orokorretik zehatzera. Bakearen Kultura eraikitzeko ardatza deskribatu ondoren, ingurumena zaintzearen eta ingurumen-justiziaren inguruko diagnostikoan identifikatutako errealitateak eta erronkak aurkeztu ditugu. Jarraian, MPDLren eta NOVACTen nazioarteko hainbat ordezkartzatant garatutako jardunbide egokien esperientziak daude ikusgai, gazteak bakea eraikitzeko prozesuetan inplikatzeko. Horietako batzuk talde-dinamika gisa zehaztu ditugu, baliabide metodologiko zehatzak iradokitze eta emateko. Ondoren, hainbat testuingurutan arlo horretako hezkuntza-lana erraztu dezaketen gomendio pedagogikoak eta estrategia orokorrak jaso ditugu. Azkenik, gako-terminoen glosario bat jarri dugu eskura, eskuliburua ulertzeko eta erabiltzeko.

Azken batean, eskuliburu hau ez da soilik erreferentzia-esparru bat, baizik eta tresna praktiko eta hurbil bat, alternatiba iraunkorrak eta bidezkoak eraikitzea helburu duten hezitzaileei laguntzea bilatzen duena. Baliabide bizia izan dadila nahi dugu, ikaskuntzako, ekintzako eta beste etorkizun batzuk posible direla sinesten duten prozesu kolektiboen pizgarri.

II. Gaiaren deskribapena

Pobreziaren aurkako borroka ezinbesteko baldintza da Bakearen Kultura iraunkorra eraikitzeko. Kontua ez da bakarrik oinarritzko beharrak (elikadura, etxebizitza edo osasuna, adibidez) eskura izatea bermatzea, baizik eta desberdintasunak eta bazterketak betikotzen dituzten egitura ekonomiko, politiko eta sozialak eraldatzea. **Pobrezia ez da soilik baliabide materialen gabezia bat, baizik eta eskubide, gaitasun, aukera eta boterearen gabezia kronikoa duen egoera multidimentsional bat, bizitza duina izateko aukera mugatzen duena.**

Desberdintasun ekonomikoa da bidegabekeria horren adierazpen nagusietako bat. **Aberastasun globalaren banaketa desorekatuak gero eta arrakala sakonagoa sortzen du aukerak eskura dituztenen eta sistematikoki bazterrean geratzen direnen artean.** Agertoki horretan, pobrezia egiturazko oztopo bihurtzen da, milioika pertsonak beren komunitateetako bizitza sozial, ekonomiko eta politikoan erabat parte hartzea eragozten baitu, bazterketa eta prekarietate zikloak errepikatuz.

Pobrezia errotik desagerrarazteko, beharrezkoa da justizia sozialaren alde egitea izatea gidatzen gaituen oinarria, pertsona guztientzako eskubide eta aukera berdintasuna bermatzeko, jatorria, generoa, klase soziala edo sinesmenak kontuan hartu gabe. Horrek esan nahi du bazterkeriaren egiturazko arrazoietan esku hartu behar dela eta baliabideak eta boterea modu orekatuan banatu behar direla.

Zerga-justizia gakoa da prozesu horretan: zerga-sistema progresibo, justu eta nahikoak aukera ematen du eskubide sozialetarako sarbide unibertsala ziurtatuko duten politika publikoak finantzatzeko, hala nola hezkuntza, osasuna edo babes soziala.

Era berean, **pobreziari aurre egiteko, beharrezkoa da lan-prekarietatearen egoerak onartzea eta eraldatzea**, lortutako diru-sarrerek ez baitituzte oinarritzko beharrak asetzen, eta gizarte-bazterketaren arriskuari modu integralean heltzea. AROPE [Pobrezia edo gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonak] bezalako adierazleek islatzen dute milioika pertsona diru-sarrera oso txikiak dituzten etxeetan bizi direla, baldintza material eta sozial gogorretan, edo enplegu duinerako sarbide mugatua dutela.

Pobreziaren aurkako borroka **komunitate-lidergoak babestea eta ekitatea eta ongizate komuna bermatuko dituzten alternatiba sozioekonomikoak eraikitzea** esan nahi du. Horrela bakarrik izango da posible bake iraunkor baterako behar diren

baldintzak sortzea, pertsona guztiek beren eskubideak bete-betean erabili ahal izateko eta autonomiaz, errespetuz eta itxaropentsu bizi ahal izateko.

III. Errealitateak eta erronkak gazteekin gai hau lantzeko, gure diagonalistikoaren arabera

Gazte hezitzaile gisa egiten dugun lanerako pizgarriak izatea espero dugun hezkuntza-espereentzien aurkezpen zehatza egin aurretik, aipatutako diagnostikoan identifikatu genituen ondorio nagusietako batzuk partekatuko ditugu.

Diagnostiko honetan parte hartu duten pertsonen pobreziaaren aurkako borrokari dagokionez, zer ulertzen duten, zer uste duten eta zer kezka dituzten galdetu genituen, ikusi genuen **parte hartu duten pertsona gehienak (% 71,6) ez direla, zorionez, meritokraziaren mito faltsuan erortzen**, eta ez dute uste pertsona bat pobrea denik behar adina ahalegintzen ez delako.

Gainera, **pobreziaaren aurkako borroka giza eskubideekin lotuta dagoela uste dute, hala nola, hezkuntzarako sarbidea (%83), bidezko soldatak dituzten lanpostu duinak (%75,25) eta desberdintasun soziala murrizten duten politikak (%70,7).**

Hala ere, deigarria da **%20ak baino gutxiagok aipatzen duela zein garrantzitsua den gehien dutenei zerga gehiago kobratzea, aberastasuna birbanatzeko** eta desberdintasun sozialari aurre egiteko. Gizartean, ez bakarrik sektore atzerakoienetan eta ez bakarrik aberatsenetan, askok uste dute zergek lapurreta suposatzen dutela. Justizia sozialaren inguruan sentsibilizatu nahi badugu, ezinbestekoa da diskurtso horri aurre egitea.

Ardatz honetako erronkak, beraz, honako hauek dira:

1.- **Parte-hartzaileei entzutea, haien interes eta beharretatik abiatzen diren ekintzak diseinatzeko haiekin.** Haien kezkek, aurreiritziak eta beldurrak jasotzea, berriz pentsatzeko eta herritartasun-zentzua sustatzeko eta gizarte-bazterkeriari aurre egiteko, ez baita erremediorik gabeko kondena.

2.- **Pobrezia oinarrizko eskubideak ukatzea dela azaltzen duen markoa indartzea parte-hartzaileen artean.** Esparru partekatu horrekin lan egitea, oinarri komun horietan ideia eta eztabaida berriak finkatzeko.

3.- **Zergak deabrutzeari utz diezaioten sustatzea**, eta ongi finantzatutako zerbitzu publikoak, gizarte-politika sendoak eta gizartea birbanatzeko neurriak edukitzeko zerga-justiziak duen garrantziari buruz sentsibilizatzea. Zergen gaineko deabrutzea gaurkotasetatik haratago doan gizarte-giro baten ondorio dela ulertzea, beharbada

familian ere hauteman duguna, eta klase pribilegiatuen diskurtso interesatu nagusi baten ondorio dela ulertzea.

4.- **Iritzia ematen duten liderrak ezagutaraztea. Lider horiek honako diskurtso nagusiarekin hautsi egingo dute: ahalko balu, edonork orainduko lukeela zerga gutxiago, edo Ogasunak lapurtzen digula.** Influencer guztiak ez dira Andorrara joan bizitzera eta askok zergak ordaintzearen aldeko mezuak zabaldu dituzte.

5.- Errealitate horri, Iparraldearen erantzukidetasunari eta kapitalismo kolonialista eta harrapari baten ondorioei buruzko pentsamendu sakona sustatzeko praktika egokiak egin diren testuinguruetako pobreziaren errealitateari buruz hausnartzea.

IV. Praktika egokiak

Jarraian, bakegintza prozesuetan gazteen parte-hartzea bultzatzeari buruzko zenbait esperientzia aurkeztuko ditugu, pertsona guztien giza eskubideetarako sarbidea zabaltzea helburu dutenak. MPDL eta NOVACTeko nazioarteko ordezkaritza batzuetako taldeek azpimarratzen dituzte esperientzia horiek, eta eskuliburu hau eskuartean dugunontzat pizgarri izatea espero dute.

Niger

Gatazkak prebenitzeko eta modu baketsuan kudeatzeko foroak

Lantzen diren BKren gaiak		Genero-berdintasuna eta indarkerien prebentzioa
		Ingurumena zaintzea
		Giza eskubideen defentsa
		Kulturartekotasuna
	x	Pobreziaren aurkako borroka
	x	Indarkeriarik eza/gatazkei modu baketsuan aurre egitea/bestelako eduki espezifikoak.
Lantzen dituen beste gai batzuk		Baliabideak modu orekatuan banatzea, bizilagunen arteko harreman onak, ustelkeriaren aurkako borroka, nekazarien eta abeltzainen arteko baliabide naturalen kudeaketa, lurrak edukitzeko segurtasuna, eta genero-indarkeria eta gazteen erradikalizazioa prebenitzea.

Helburua/k	Gizartean edo komunitatean batasuna sustatzea. Baliabideak modu orekatuan banatzea. Belaunaldien arteko trukeak sustatzea, liderrek ordezkatzeko dituzten gazteen eta emakumeen parte-hartzearen bidez. Komunitateetan eta erakundeetan giltzarri diren eragile guztien artean elkarrizketak sortzea, komunitateetan identifikatutako gatazka eta indarkeria mota guztiei buruz, horiek prebenitzeko eta modu baketsuan kudeatzeko. Gatazkek prebenitzeko eta modu baketsuan kudeatzeko mekanismo endogenoak sustatzea. Era berean, komunitatea ordezkatzeko duten gizarte- eta erakunde-talde guztiek ebaluatu dezakete ezarritako konpromisoen betetze-maila, elkarrekin adostuz, gatazkek prebenitzeko eta modu baketsuan kudeatzeko.
Proiektuaren hartzaile den edo lotura duen biztanleria (adibidez: gazte mobilizatuak, mobilizatu gabeak, migratuak B/E, gizarte-egoera ahulean daudenak B/E, etab.)	-Komunitate horietako emakumeak, gazteak, gizonak, pertsona ezgaituak, aberatsak eta pobretuak. -Erakundeetako ordezkariak: tokiko eta sailetako agintariak, Bakea Sendotzeko Goi Agintaritzaren ordezkaria, Lurren Saileko Batzordearen ordezkaria (COFODEP), zerbitzu tekniko banatuetako ordezkariak. -Agintari tradizional eta erlijiosoak: imanak, herrietako buruak, kantonamenduetako buruak eta elkarteetako buruak. -Landa-garapenerako batzordeetako ordezkariak (CVD). -Emakume-elkarteetako eta gazte-elkarteetako liderrak -Abeltzainen eta nekazarien erakundeetako ordezkariak.
Kokapena edo esku-hartze eremua (leku geografikoa eta hezkuntza formala/ez-formala/informala)	Niger. Konni eta Malbaza departamenduak.
Kulturaren gaiaren edo ardatzaren lorpenen egoera hobeto ulertzeko aukera emango digun informazio gakorik?	Ekintza hori Konni eta Malbaza departamenduetan egin da, nekazaritza eta artzaintza bokazioa dute eta nazioarteko hamabost transhumantzia-pasabide inguru igarotzen dira haietatik. Egoera hori dela eta, bi departamentu horietan arriskua egoten da beti: behin eta berriz errepikatzen dira gatazkek, eta batzuetan hildakoak ere izaten dira, abeltzain transhumanteen eta nekazarien artean. Hori horrela da, nahiz eta Nigerreko Estatuak 1993ko martxoaren 2ko 93-015 ordenantzaren bidez hainbat dispositibo abian jarri zituen. Ordenantza horrek Landa Kodea Bideratzeko Printzipioak (POCR) ezarri zituen, lurren eta baliabide naturalen kudeaketa hobea ziurtatzeko.

	Gazteak lanik gabe geratzeak eta, batzuetan, Europako Batasuneko gaien kudeaketan inplikaturik ez egoteak erradikalizatzea eta talde terroristetan, bandetan edo talde kriminaletan sartzea eragiten du. Genero-gatazkak eta -indarkeriak ohikoak dira, eta, oro har, pertsonen eta, batez ere, emakumeen eskubideak ez ezagutzeari lotuta daude. Batzuetan, komunitate jakin batzuetako usadioek eta ohiturek eragiten dituzte.
Hemen proposatutako esku-hartze ibilbidearen iraupena	4 urte. MPDL Nigerrek urtero laguntzen ditu foro horiek 2022tik.
Esku-hartze estrategia eta/edo metodologia(k)	Batzorde mistoak (gizonezkoak eta emakumezkoak) abian jarri dira gatazkak modu baketsuan kudeatzeko, eta sentsibilizazio-saioak eta -prestakuntzak egin dira (komunitatean, irratian bidez, etab.), baliabideak modu bidezkoan banatzeko eta gatazkak prebenitzeko eta modu baketsuan kudeatzeko. Ondoren, kulturarteko eta belaunaldien arteko foroak egin dira. Foro horietan gazteen eta emakumeen erakundeetako liderrek eta hainbat komunitatetako buruzagi tradizional eta erlijiosoek parte hartzen dute, erakundeen aurrean. Gatazken prebentziorako eta kudeaketa baketsurako mekanismo endogenoak lagundu nahi dira. Lider tradizionalen aurrean, bereziki kantonamenduetako buruen eta taldeetako buruen aurrean, “emandako hitza errespetatzean” ere oinarritzen direna mekanismo hauek. Ibilbide-orri batean, parte hartzen duten alderdi guztiek adostutako konpromisoak zehaztu dira: konpromiso horiek betetzen diren eta abian jartzen diren jakiteko jarraipen-tresna da.
Beharrezko materialak	● Finantziaketa ● Baliabide materialak ● Joan-etorrietarako bitartekoak ● Komunikabideak
Jardueraren garapena	● Prestakuntza-fasea: Erakundeei aurkeztu beharreko prozesuari buruzko informazioa prestatuko da, erreferentzia-terminoen eta gonbidapen-gutunen bidez. Tokiko agintarien eta agintari tradizionalen, komunitateetako ordezkarien, gazteen eta emakumeen informazioa prestatuko da foroak egingo diren datarako. Batez

	ere, elkarrizketa komunitarioak antolatuko dira babestutako herrixketan, aurreko foroan ezarritako konpromisoak abiaraztearen jarraipena egiteko eta hurrengo foroan eztabaidatuko diren gaiak prestatzeko. Foroa gidatuko duen moderatzailea ere identifikatuko da, eta, askotan, saileko lursailen batzordean (COFODEP) edo Bakea Sendotzeko Goi Agintaritzaren mailan (HACP) izendatzen da ● Gauzatze fasea: Moderatzaile batek gidatuko du: - Buruzagi tradizionalek, batez ere kantonamendu eta taldeetako buruek, hitza hartuko dute foroan, bere ardurapean daudenak sensibilizatzeko gizarte-kohesioaren indartzeaz, transhumantzia-pasabideak eta artzaintza-eremuak errespetatzeaz eta, gatazkarik izanez gero, beren rol bateratzaileaz. - Lurren segurtasuna bermatzeko jarraitu beharreko prozedurak definitzen dituen landakodearen printzipioak ere gogoratuko dira - Ondoren, bake iraunkorra bermatzeko hartu beharreko ekintza-proposamen zehatzei buruzko talde-lanak edo osoko bilkura antolatuko dira. Talde-lanaren edo osoko bilkuraren fase horretan egingo da ibilbide-orriko konpromisoen jarraipena, egindako aurrerapenak neurtzeko eta kontuan hartu beharreko gomendio edo konpromiso berriak zehazteko (transhumante-abereak bazkatzeko soroak irekitzeko eta ixteko data berriak errespetatzea, adibidez). ● Jarraipen- / ebaluazio-fasea: Foroan lortutako konpromisoak Erkidego mailan berrezartzen dira, garapenerako landa-batzordeek (CVD) dinamizatutako elkarrizketa komunitarioko espazioetan, gazteen ordezkariak "fada" [gazteen topagunea] delakoetan eta emakumeen ordezkariak kooperatiben bilerak eginez. Komunitate-elkarrizketetan (hurrengo foroaren data hurbiltzen ari denean izaten dira) hartutako konpromisoen betetze- eta aplikazio-mailaren segimendua egitea. Elkarrizketa komunitarioak, batzuetan, COFODEPek gainbegiratzen dituzte.	
Ikusitako arriskuen (A), zailtasunen (Z) eta lorpenen (L) analisia	A	Lehia eta mesfidantza handia dago taldeen artean. Beste arriskueta bat Nigerren eta Sahelen egungo testuinguruari lotutako segurtasun eza da.

	Z	Klima-aldaketak, segurtasun faltak eta pobreziak proiektua ondo garatzea zailtzen dute. Sarritan, erakunde eta agintari tradizionalek ezin dute aukeratutako data batean parte hartu; beraz, batzuetan, eragile horiek, konpromisoen definizioan pisu nabarmena dutenak, ez dira hor egoten, eta hirugarrenek ordezkatzeko dituzte. Horrek zaildu egiten du konpromiso garrantzitsuetara iristea eta praktikan jarri ahal izatea.
	L	Aurrera egin da klima-aldaketaren, segurtasun ezaren eta pobreziaren aurkako borrokan. Lorpen garrantzitsuak izan dira, halaber, komunitateen arteko eta komunitateen barruko indarkerien aurkako borrokan (segurtasun-ezaren aurkako borroka)
Zein aldaketa edo eraldaketa sustatu edo sortu ditu esperientzia honek?		Lurraren, faunaren eta floraren lehengoratzeari aurrera egin da, klima-aldaketaren aurkako borrokan bidez. Ahalegin komunitarioaren eta bizikidetzaren emaitza izan da hori. Komunitateen arteko kohesio soziala indartu da, gazte eta helduen artekoa. Aurrera egin da, halaber, enpleguaren sorreran, diru-sarreraren eta bizi-mailaren igoeran, pobreziaren aurkako borrokan bidez.
Barneratutako ikasgaiak, etorkizunerako gomendioak eta gazteekin lan egiteko egokitzea.		Testuinguru horretan, uste da gazteen elikadura-segurtasuna, osasuna eta hezkuntza direla garatu eta hobetu beharreko lehentasunetako batzuk. Halaber, garrantzitsua da gazteentzako enplegua sortzea (neskak eta mutilak). Sentsibilizazio askoz zabalagoa lortzeko, irratiko komunitarioetan hartutako konpromisoak zabaldu behar dira.

Mali

Giza eskubideei buruz sentsibilizatzea, bereziki emakumeen eta neskatuen eskubideei buruz

Lantzen diren BKren gaiak	X	Genero-berdintasuna eta indarkerien prebentzioa
	X	Ingurumena zaintzea
	X	Giza eskubideen defentsa

	X	Kulturartekotasuna
	X	Pobreziaren aurkako borroka
	X	Indarkeriarik eza/gatazkei modu baketsuan aurre egitea/bestelako eduki espezifikoak.
Lantzen dituen beste gai batzuk	Baliabideen banaketa parekidea, bizilagunen arteko harreman onak, ustelkeriaren aurkako borroka.	
Helburua/k	1. Errespetuan, berdintasunean eta lankidetzan oinarritutako komunitate baketsuak sortzea. 2. Indarkeria eta bidegabekeria murriztea, genero-ikuspegitik, eta arreta berezia jarriz emakumeen eta neskatoen aurkako indarkerietan. 3. Pertsonak eta ingurumena erdigunean jarriko dituen komunitate bat sortzea, bakoitzaren barruan nahiz haien artean ezartzen diren loturei erreparatuz, haien kodependentzia eta haien bizitza eta garapena elkartasunean, zaintzan eta bake iraunkorrean, zentzurik zabalenean, oinarritzeko beharra ulertuz.	
Proiektuaren hartzaile den edo lotura duen biztanleria (adibidez: gazte mobilizatuak, mobilizatu gabeak, migratuak B/E, gizarte-egoera ahulean daudenak B/E, etab.)	Gizonak, emakumeak, gazteak, pertsona ezgaituak,, aberatsak, pobreak, boterea duten pertsonak (aginpidea erabakiak hartzeko orduan), emakumeen eta neskatoen eskubideez arduratzen ez diren gizonak, batez ere landa-ingurunean.	
Kokapena edo esku-hartze eremua (leku geografikoa eta hezkuntza formala/ez-formala/informala)	Jarduera Maliko landa-komunitateetan kokatzen da (mendebaldeko Afrikako Sahel herrialdea), 22 395 489 biztanle inguru ditu (Rap RGPH5 2022), 1 241 328 km ² -ko azalera handia eta muga lerro luzea (7 240 km), ez dago oso kontrolatua eta inguruko zazpi herrialderekin partekatuta dago. Mali etnia eta kultura anitzeko herrialdea da, eta biztanle gehienak analfabetoak dira, batez ere landa-eremuetan (%33,7ko alfabetatze-tasa 15 urte edo gehiagokoan artean, RGPH5en arabera). Gainera, esan beharra dago herrialde horrek dimentsio anitzeko krisia jasaten duela 10 urte baino gehiagotik (gatazka armatua, terrorismoa, etab.). Denbora luzez nagusi izan dira hiriko eta hiri-inguruko delinkuentzia, gatazka	

	komunitario anitzak duela urte askotatik, segurtasun eza gero eta handiagoa eta matxinada errepikatuak Iparraldean, estatu kolpe militarrek, eskola krisiak eta segurtasun eza areagotzen duten aldarrikapen korporatibistak.
Kulturaren gaiaren edo ardatzaren lorpenen egoera hobeto ulertzeko aukera emango digun informazio gakorik?	Sexuen arteko berdintasuna sustatzeko beharretik sortu da praktika hau, testuinguru honetan aurkitzen baitugu genero indarkeriak eta sexu indarkeriak direla bortizkeria mota ohikoena, batez ere herrialdera segurtasun krisi bat iritsi ondoren. Ezegonkortasun eta segurtasun falta horren ondorioz, bortxaketak, nahigabeko haurdunaldiak, sexu-esplotazioa eta ezkontza goiztiarrak ugaritu egin ziren barne-desplazatu asko zeuden lekuetan (jihadistengandik ihesi zihoazen biztanleentzat sortu ziren, eta lekuak mugatuak ziren) edo jihadistek menderatutako gunetan, eraso asko eta populazioen aurkako zapalkuntza handia baitzegoen. Praktika horren bidez, gizartearen eta komunitatearen baitan batasuna eta bizikidetzak baketsua sustatzea lantzen da, nahiz eta lan neketsua eta epe luzerako ikuspegia duen, aurre egin nahi dion problematikaren egiturazko izaeragatik eta herrialdearen egungo testuinguruagatik. Lan hori, gainera, baliabideen banaketa justu eta bidezko baten faltak baldintzatzen du, eta hezkuntza edo osasuna bezalako eskubideak ez daude bermatuta eta ez dira eskuragarriak biztanle guztientzat.
Hemen proposatutako esku-hartze ibilbidearen iraupena	4 urte
Esku-hartze estrategia eta/edo metodologia(k)	Batzorde mistoak (gizonezkoak eta emakumezkoak) abian jarriko dira, gatazkak modu baketsuan kudeatzeko. Bakerako hezteko, pertsonen gatazkak modu baketsuan konpontzeko eta indarkeria prebenitzeko gaitasunak eta balioak emateko trebakuntza-saioak edo forumak egingo dira. Sentsibilizazio-saioak egingo dira komunitate mailan, komunikabideen (irratien) bidez, sentsibilizatzeko, herritarrekin komunikazio-kanalak ezartzeko, pentsamendu kritikoa eta konpromiso soziala bultzatzen duten eztabaida sozialak irekitzeko. “Sinankunya” garatuko edo sustatuko da. Malin balio ordainezina duen herentzia da, “ahaidetasun jostagarri” izango litzateke itzulpena, senidetasunaren ordeza jarauntsitako aliantza eta ez erasotzeko ituna da, elkarri iseka egiten dion joko bati lotuta dago eta, joko horren

	bidez, nork bere burua berraurkitzen du bestearengan. Oinarriak askotarikoak dira, eta sakratuak eta ukiezinak dira. Abizen, komunitate, herri eta gainerako harreman mota guztien arteko betebeharrak moral gisa aurkezten da. Sinankunea, zalantzarik gabe, gizarte-bitartekaritzarako tresna bikaina da Malin, eta gatazkak konpontzeko ohiko mekanismo bizietan parte hartzen du maila guztietan.	
Beharrezko materialak	- Finantziakzioa - Baliabide materialak - Komunikabideak - Garraiobideak	
Jardueraren garapena	- Prestaketa-fasea - Gauzatze-fasea: sentsibilizazioak egiten dira, pertsonak eta laguntza komunitarioko taldeak eta haien ekipamendua prestatzen dira, prestakuntza eta gaitasunak indartzen dira, gizarte-kanalak ezartzen dira eta eztabaida sozial kritikoak irekitzen dira. - Jarraipen- eta ebaluazio-fasea	
Ikusitako arriskuen (A), zailtasunen (Z) eta lorpenen (L) analisia. Zailtasun nabarmenik egonez gero, haiek gainditzeko mekanismoak adierazi.	A	Klima-aldaketa, segurtasunik eza, pobrezia testuinguruaren faktoreak dira, eta arriskutsuak dira ekimena garatzeko.
	Z	Norgehiagokak, taldeen arteko mesfidantzak, hazkunde eta presio demografikoak, ezegonkortasun politiko eta instituzionalak, faboritismoak, gizarte-bidegabekeriak, gehiegikeriek eta gobernantza tradizionalaren sistemaren gero eta ezgaitasun handiagoak zaildu egiten dute ekimen hau gauzatzea.
	L	Klima-aldaketaren, segurtasun ezaren eta pobreziaaren aurkako borroka. Gainera, giza eskubideei buruzko sentsibilizazioak egitea lortu da, batez ere emakumeen eta neskatuen eskubideei buruzkoak.
Zein aldaketa edo eraldaketa sustatu edo sortu ditu esperientzia honek?	Gizonen eta emakumeen arteko komunikazio-harremanak hobetu egin dira, hobeto partekatzen baitituzte kargak eta elkarrekin bizitzearekin lotutako gaiak eta erronkak. Gizonen sentsibilitatea handitu egin da emakumeen arazoekiko (emakumeen estatus/posizio aldaketa gizonen	

	begietara). Emakumeek beren komunitatearen garapenean duten parte-hartzea indartu egin da, eta gizonak kontzientzia handiagoa hartu dute gizartean emakumeak dituzten rol-aldaketari buruz. Klima-aldaketaren aurkako borrokaren bidez, lurren, faunaren eta floraren leheneratzean aurrera egin da. Askatasuna, garapena eta bakean bizitzea, segurtasun ezaren aurkako borrokaren bidez indartu da. Enpleguak sortu dira, eta diru-sarrerak eta bizi-maila handitu dira pobreziaren aurkako borrokaren bidez.
Ikasitako lezioak, etorkizunerako gomendioak eta gazteekin lan egiteko egokitzeak.	Testuinguru horretan, uste da gazteen elikadura-segurtasuna, osasuna eta hezkuntza direla garatu eta hobetu beharreko lehentasunetako batzuk. Halaber, garrantzitsutzat jotzen da gazteentzako (neskak eta mutilak) enpleguak sortzeko lehentasuna ematea. Jarrera-aldaketa ibilbide luzeko lana da, baina gaur egun esan dezakegu aurrerapenak sumatzen ditugula herritarren sentsibilizazio-mailan, eta, beraz, uste dugu horren bidez lor daitekeela desberdintasunak, bidegabekeriak eta emakumeen eskubideen urraketak murriztea beren gizarteetan.

Praktika egokiak testuingurura egokitzeko gomendioak

Nigerreko gatazkak prebenitzeko eta modu baketsuan kudeatzeko foroak

Hainbat kultura eta belaunaldi bizi diren Espainiako auzoetan gatazkak modu baketsuan konpontzeko eta pobreziari aurre egiteko tresna eraginkorra bihurtu daiteke komunitate-foroak antolatzea. Espazio horietan gazteen, familien, elkarten eta erakundeetako ordezkarien arteko elkarrizketa irekia sustatu behar dute, irtenbide kolektiboak eraiki daitezkeen tokietan tentsioen aurrean, hala nola diskriminazioaren, aukera faltaren edo segurtasun ezaren aurrean. Metodologia Espainiako testuingurura egokitzeak gazteen parte-hartze aktiboa sustatzea esan nahi du, eta ziurtatuko da ez ditugula hartzen bakarrik begirale gisa, baizik eta erabakiak hartzeko protagonista gisa. Pobreziaren eta bazterketaren aurkako borroka gaitasun- eta agentzia-zentzu bat sustatuz lortzen da, guztien artean mantentzen eta eraikitzen den komunitate bateko kide izatearen sentimendua sustatuz eta diru-sarrerak sortzeko, gazteen enplegua sustatzeko eta baliabideak modu jasangarrian erabiltzeko modu berriei buruzko pentsamendua sortuz.

Giza eskubideen inguruan sentsibilizatzea, bereziki Maliko emakume eta neskatoen eskubideen inguruan

Giza eskubideei eta, bereziki, genero-berdintasunari buruzko sentsibilizazioa tailer parte-hartzaileen bidez egin daiteke, informazio argia eta dinamika sortzaileak (eztabaidak, dramatizazioak edo ikus-entzunezko ekoizpenak) uztartuz. Espainiako testuinguruan, funtsezkoa da emakumeen eta neskatoen aurkako gaur egungo indarkeria-motak ikusaraztea —gizarte-sareetako jazarpenetik hasi eta aukerak eskuratzeko arrakalaraino—, betiere jatorri, identitate eta esperientzia anitzak barne hartzen dituen ikuspegi intersektzional batetik lan eginez.

Beste praktika posible batzuk

Gomendio horiez gain, proiektu honi lotzen gatzaizkion MPDLko eta NOVACTeko hezitzaile-taldeak tailerren gidoi batzuk proposatuko ditugu jarraian, hemen erakusten dugun hezkuntza-lanaren pizgarri izan daitezen:

JARDUERA: Baliozko hitzak	
Helburua	1. Gazteen ikaskuntza ekonomiko eta fiskala, eremu horretan oinarritzko alfabetizazioan eta finantza-hezkuntzan laguntzeko. 2. Aurreiritziak mahai gainean jartzea eta aurre egitea. 3. Gozatzen denaren atzean dagoen balioa ulertzea.
Materialak	Finantza-eremuko hitzak dituzten orriak, egunkaria.
Iraupena	Saio 1
Garapena	Talde-teknika soziometrikoa; horren bidez, gazteak finantza-sektoreko hainbat hitzez osatutako mapa batean mugitu ahal izango dira, hainbat jarraibideri segituz. Hala, finantza-ezagutza sortzeko balioko duten zalantzak eta galderak jarriko dira mahai gainean. Prestakuntza logistikoa: Lan egiten den kolektiboarentzat garrantzitsua den finantza-ezagutzari buruzko hitzen zerrenda bat diseinatzen da. A4 orriak moztu tiratan, eta tira bakoitzean hitz horietako bat idatzi, modu argi eta handian. Hitzen adibideak: Zerga - Amortizazioa - Kreditua - Hartzekoduna - Diru-sarrera Garbia - Diru-sarrera Gordina Hasiera: Hasteko egunkari bateko ekonomia ataleko albiste bat jaso daiteke. Ozen irakurri eta berri horrek zer esan nahi duen

	azaltzeko eskatuko zaio taldeari. Azpitaldeak osatuz gamifikatu daiteke, eta albistea irakurri ondoren 2' eman, azpitalde bakoitzak pentsatu dezan nola itzuli. Helburua: itzultzea, gaiaz ezer ez dakien norbaitek uler dezan. Garapena: Lurrean barreiatuko dira hitz ezberdinak. Teknikak hainbat eratarara jarraitu daitezke, edo txandaka. 1. modua - Definizioak lotu - Definizio bat irakurriko da eta definizio horri dagokiola uste duten hitzaren gainean kokatu behar dira gazteak. Ondoren, zalantzak argituko dira, eta, garrantzitsua da haien egunerokotasunaren adibideak jartzea. 2. modua - Ezagutza/ezjakintasuna egiaztatzea - “Jarri gutxien ezagutzen duzun hitzaren gainean” agindua: hitz horren informazioa ematen da. - “Jar zaitez gehien ezagutzen duzun hitzaren gainean” agindua: azal dezatela eskatuko zaie + zuzenketak egingo dira, beharrezkoak badira. 3. modua - Diruaren atzeko emozioak - Zein hitz entzun duzu gehien? - Zein hitz da negatiboa? Bigarren honek zenbait kontzepturen inguruko deabrutzeak ikusteko aukera ematen du. Ulertarazi hitzak ez direla negatiboak, baizik eta denak direla ezagutzeko beharrezkoak, eta negatiboa dena hitzak ez ezagutzea da. - Egoera emozionalak hitzekin lotzen dituzten beste premisa batzuk. Amaiera: Amaitzeko, gazte bakoitzak prozesuan bizi izan dituen aldaketak azaldu ahal izango ditu: “etortzean zuen ideia bat, saio honen ondoren duen ideia bat”.
Hausnarketa	Mugitzeko eta hitz desberdinak ezagutzeko teknikaren ondoren, hausnarketarako tarte zabalduko da: - Zer ondorio ditu guk hitz horiek jakiteak edo ez jakiteak? - Zerbait ez badakigu, gure kontra erabil dezakete? - Ba al dugu asko errepikatu diguten edo askotan entzun/ikusi dugun sinesmenen bat?

V. Azken gomendio orokorrak

Jarraian, eskuliburu honetan jasotako lan-esperientziak egokitzeke zenbait iradokizun aurkeztuko ditugu. Lan-esperientzia horiek gazteek bakearen eraikuntzan parte har dezaten sustatzera bideratuta daude, haien eraldatze-ahalmena indartzeko.

1. Tokiko testuingurura egokitzea

- **Gertukoa eta orokorra lotzea:** esku hartzen den lurraldean dauden gizarte-bidegabekeria edo indarkeria mota desberdinen (zuzenekoa, kulturala eta egiturazkoa) adierazpena identifikatzea. Bidegabekeria eta indarkeria hauek harremana dute fokua jartzen ari garen bake-eraikuntzari lotutako gai-ardatzarekin. Munduko beste leku batzuetako adierazpenekin ere lotu beharko dute gertukoa. Horrekin, mugaz gaindiko arazoei heldzea bilatuko da, hala nola gazteen lan prekarietatea, arrazakeria estrukturala, indarkeria matxista, sare sozialetako indarkeria edo gorroto diskurtsoak, komunalitateak eta alderdi diferentzialak nabarmenduz, interseksionalitatearen fenomenoak azaleratzeari utzi gabe.
- **Hasieratik entzutea:** gazteek sortzailekide izan behar dute parte hartzen duten hezkuntza-prozesuen diseinutik abiatuta, eta ez bakarrik onuradun. Horrela, esku-hartzean lantzen diren azpigaien zehaztapena eta haiek taxutzen dituzten jarduerak edo metodologiak hobeto lotuko zaizkie beren interesei, garrantzitsuagoak egingo zaizkie eta ikaskuntzak esanguratsuagoak izango dira. Eskuliburu hauek diseinatu aurreko diagnosi-prozesuan, “entzuten zaiela sentitzea eta eztabaidatu ahal izatea” izan zen haien eskaera nagusietako bat. Zaharberritzeko hezkuntza-jardunbideetatik proposatzen direnak bezalako interesak esploratzeko hitz-zirkuluak planteatzeaz gain, eskuliburu hauetan landuko diren Bakearen Kulturaren ardatz eraikitzaileei dagokienez, Espainiako testuinguruan gazteei gehien interesatzen zaizkien kontuei buruzko hasierako argibide batzuk izateko, erreferentzia hauek kontsulta daitezke:
 - “BAI BAKEARI” diagnostiko-txostena:
https://www.mpdl.org/sialapaz/06_Informe%20de%20diagn%C3%B3stico%20final.pdf
 - “Informe Juventud en España 2024: entre la emergencia y la resiliencia”, Ministerio de Juventud e Infancia (“Gazteak Espainian 2024: larrialdiaren eta erresilientziaren artean” txostena, Gazteria eta Haurtzaro Ministerioa, INJUVE)
- **Hizkuntza irisgarri eta kulturalki egokia erabiltzea:** gure planteamenduetan teknizismoak saihestea eta gazte-kodeetara hurbiltzea (musika, sareak, kirola, hiri-arteak).

- **Taldeen barne-aniztasuna baloratzea:** jatorri kulturalak, migrazio-ibilbideak eta genero-identitate anitzak ezagutzea, ahots guztiak entzun daitezela bermatuz. Begirada intersektionala izatea, desberdintasunak sortzean generoa, klasea, etnia, adina edo beste faktore batzuk nola gurutzatzen diren aztertzeke.

2. Espazio seguru baterako baldintzak

- **Gazteriarekin batera bizikidetza-akordioak eraikitzea:** errespetua, konfidentzialtasuna eta entzute aktiboa. Elkarrikeria Zirkuluak planteatzeko, hala nola hezkuntzako praktika konpontzaileak proposatzen dituztenak, oinarritzko akordio hauek proposatzen dira: hitzaren txandaren objektu identifikatzailea duenak bakarrik hitz egiten du, gainerakoek entzuteko boterea duten bitartean; borondatezkoa da hitz egitea; zirkulua kide guztiek zaintzen dute.
- **Ondoeza agertuz gero elkarri laguntzeko edo zaintzeko protokoloak txertatzea:** gai batzuek (indarkeria, arrazakeria, pobrezia) esperientzia pertsonalak aktibatu ditzakete.
- **Gazteak protagonista direla onartzea:** ikasleei ulertaraztea ez ditugula hartzen izaki ezjakintzat edo eduki-hartzaile pasibotzat, horrek esan nahi du irakaslearen eta ikasleen arteko noranzko bakarreko komunikazioa saihestea, ikasgela osoaren parte-hartzea sustatzea, helduen begirada harroputzak saihestea, eta, horrekin batera, gazteek ezagutzen dutenarekiko edo beren buruari galdetzen diotenarekiko benetako jakin-mina praktikatzeko, eta ikasgelan sortzen den ezagutza kolektiboki eraikitzen dela transmititzea. Horrek guztiak esan nahi du irakasleak ez direla jakinduriaren eta egiaren jabe bakarra, eta ikasleak, berriz, pertsona helduek bete beharreko ontzi hutsak.
- **Espazio ausarta sustatzea:** Palestinan jasotako eta “Genero Berdintasunerako Eskuliburuan” aurkeztu den esperientziari jarraituz, gai deserosoak jorratu ahal izateko eta diskurtso alternatiboak sortzeko *espazio seguru* baten sorreratik harago joatea da asmoa, indarkeriak goraipatzen dituen inertzia dominatzaileetatik urrun. Pertsonen eta taldeen arteko elkarrikeria horiek testuinguru polarizatu edo tentsionatueta planteatzean inspirazioa aurkitzeko, epe luzera bizikidetza bermatuko duten eraldaketak lortzeko estrategia komun baten topaketa erraztu nahi duten testuingurueta, John Paul Lederachek “Diálogos improbables” (“Elkarrikeria gertagaitzak”) edo Escola de Cultura de Pau (Paueko Kulturaren Eskola) delakoak egindako lana, “Discrepancia bienvenida: guía pedagógica para el diálogo controvertido en el aula” (“Ongi etorri desadostasuna: elkarrikeria eztabaidagarriko gida pedagogikoa ikasgelan”), erreferentziatzen har ditzakegu.

3. Iradokitako metodologiak

- **Artea eta kultura:** zapalduaren antzerkia, muralismoa, musika, argazkigintza edo zirku soziala, mobilizazio emozionala eta hausnarketa kritiko pertsonala eta

kolektiboa errazten duten tresna sortzaileak dira, motibatu eta hunkigarri gertatzen diren egoera errealean edo errealitatearen antzekoen esperientziatik abiatuta.

- **Kirola eta jokoa:** lankidetzak, errespetua eta indarkerien prebentzioa sustatzen dute.
- **Elkarrizketak eta komunitate-foroak:** gizarte-kohesioa indartzen dute, batez ere belaunaldien eta kulturen arteko espazioetan. Elkarrizketa horiek diseinatzeko, hezkuntza-praktika leheneratzaileetako erreferenteetara jotzea gomendatzen dugu, hala nola Belinda Hopkinsek proposatutako Zirkuluaren denbora edo Hitzaren Zirkulua.
- **Teknologia digitalak:** sare sozialetan gazte-kanpainak diseinatzeko aukera eskaintzen dute, edozein gai interesgarriren inguruan, indarkeria ezan oinarrituta. Lan hau planteatzeko baliabide inspiratzaile gisa, NOVACTek garatutako “Digital Organising” programa proposatzen dugu, IKTbak erabiliz Bake Kultura globala sustatzen duten eragin-kanpainak diseinatzeko online trebakuntza: <https://novact.org/es/formacio/>.

4. Iraunkortasuneko funtsezko faktoreak

- **Prozesu jarraituak:** jarduera bakanak saihestea eta iraupen ertain/luzeko ibilbide planifikatuan oinarritutako hezkuntza-prozesuen aldeko apustua egitea. Prozesu horiek, hain zuzen, proiektuen bidezko lana ahalbidetzen dute, eta irakasgai desberdinen artean eduki komunak transbertsalizatzen dituzte.
- **Gazteen talde eragileak:** gazteen motibazioa eta gaitasunak estimulatzea, beren komunitatean esku hartzeko gai direla senti dezaten, eta sentsibilizatzea edo beste leku batzuetako gizarte-mobilizazioa sustatzea, hedatze-prozesuak sortuz.
- **Sare-lana:** auzoko elkarrekin, ikastetxeekin, gizarte-zerbitzuekin eta gazte-taldeekin koordinatzea, ikaskuntzak eta parte hartzeko benetako aukerak lotzeko.
- **Belaunaldien arteko erantzunkidetasuna:** hezitzaileak, familiak eta gazte-zentroetako langileak erreferente egonkor gisa inplikatzeko.
- **Tokiko agintarien inplikazioa:** denboran eta baliabide ekonomikoetan iraunkortasuna bermatzeko gakoak.
- **Ebaluazio parte-hartzailea:** gazteek ikasitakoa ebaluatzen duten eta hobekuntzak iradokitzen dituzten uneak integratzea, prozesuen sortzailekide gisa duten zeregina indartuz.

Azken batean, gomendio hauek ez dira errezeta bakarra, orientabide irekien multzo bat baizik, eta talde eta hezitzaile bakoitzak bere errealitatera egokitu ahal izango ditu. Funtsezkoa da sinestea gazteria protagonista dela bakea eta ingurumen-justizia eraikitzean, eta gure hezkuntza-lana haien gaitasunak laguntzea, erraztea eta indartzea dela. Ikuspegi horretatik, esperientzia bakoitza aldaketa-hazi bihur daiteke, elkarrekin

ikasteko aukera, eta etorkizun bidezkoago, jasangarriago eta baketsuago baterako urrats irmo.

VI. Glosarioa

1. **Aporofobia:** Adela Cortina filosofoak 1995ean “pobrearenganako gaitzespena, abertsioa, beldurra eta mespretxua” adierazteko sortutako neologismoa da (Bartzelonako Udalean aipatua)
2. **Kapitalismoa:** Sistema sozioekonomiko eta politiko bat. Bertan, jabetza, negozioak eta industria, ekoizpen eta banaketa bitartekoak jabe pribatuek kontrolatzen dituzte, Estatuak beharrean, etekin ekonomikoak lortzeko asmoz (Cambridgeko Hiztegiak emandako definizioan inspiratuta). Merkatuan lehia askea sustatzea eta eskaintzaren eta eskariaren legeen bidez prezioak zehaztea ditu ezaugarri, eta, aldi berean, uko egiten dio Estatuaren interbentzionismoari. Hazkunde amaigabea du helburu, eta kapitala metatzea da haren motibazio nagusia. Kapitala duenaren irabazia erdigunean jartzeak aberastasuna esku gutxitan pilatzea eragiten du, eta kapital hori kontzentratzen dutenen eta langaitasuna salduz soilik jokoan esku har dezaketenen arteko desorekak sakontzen ditu; gainera, natura-baliabideen ustiapena areagotzen du.
3. **Zerga-justizia eta zergak:** “Justizia fiskala diogunean, zera esan nahi dugu: Ongizatearen Estatu Sozialari zerga-bilketa progresiboa eta bidezkoa egitea, pertsona eta erakunde guztiek beren ahalmen ekonomikoaren arabera egiten duten ekarpenaren bidez eta behar adinako diru-bilketa eginez, pertsonen oinarritzko eskubideak ziurtatzeko eta guztiek sozialki beharrezkotzat jotzen diren prestazio publikoak modu egokian jasotzen dituztela bermatzeko. Gure zergak gure eskubideen bermea dira, eta Konstituzioan jasota dagoen gure gizarte-ereduak oinarritzko eskubideak bermatzen baditu, hala nola etxebizitza, lana edo osasuna, horiek ahalbidetuko dituen zerga-sistema bat eraiki behar dugu” (Madrilgo GGKE sarea).
4. **Gizarte-justizia:** “Pertsona guztien eskubide eta aukera berdintasuna bermatzea bilatzen duen oinarritzko printzipioa, jatorria, generoa, egoera sozioekonomikoa, arraza edo sinesmenak kontuan hartu gabe. Bere helburua da ziurtatzea pertsona bakoitzak bere potentzial maximoa garatu eta bizitza duina lortu ahal izatea, desberdintasunak murriztuz eta oinarritzko eskubideak eskuratzea zailtzen duten oztopoak ezabatuz” (Amnistia Internazionale).
5. **Liberalismo ekonomikoa edo neoliberalismoa:** “Merkatu librea eta aurrerapen teknologikorako eta oparotasun ekonomikorako giltzarri gisa estatuaren papera mugatzea defendatzen duen teoria ekonomikoa. (...) Neoliberalak osasuna edo

hezkuntza bezalako zerbitzu publikoak pribatizatzearen eta zergak minimizatzearen alde egiten dute, ulertzen baitute Estatuari ez dagokiola zerbitzu publikoak ematea. Horren emaitza ongizate-estatu murritzuta bat da, non gizabanakoa lehenesten baita komunitatearen gainetik. Argudiatzen dute gizabanakoen artean diru-sarreraren arrakala baldin badago, askatasunaren ondorioz emaitza hobekia lortu dituztenei ematen zaien saria dela” (Mundu Ordena Berria).

6. **Meritokrazia:** Espainiako Hizkuntzaren Errege Akademiak honela definitzen du: “Gobernu sistema bat da, non erantzukizun postuak norberaren merituen arabera esleitzen diren”. Neoliberalismoari dagokion ideia da. Hala ere, kontuan hartzen badugu gaur egun ez dagoela aukera-berdintasunik, ezin da defendatu edonor irits daitekeela posizio sozial edo ekonomiko on batera norberaren merituegatik eta ahaleginarekin. Era berean, ezin zaie egoera ekonomiko ahuleko pertsonari errua bota, behar beste ahalegintzen ez direla adieraziz.
7. **Pobrezia:** “Bizi-maila egokiaz eta bestelako eskubide zibil, kultural, ekonomiko, politiko eta sozialez gozatzeko beharrezkoak diren baliabideak, gaitasunak, aukerak, segurtasuna eta boterea etengabe edo kronikoki kentzen zaion giza izaera” (Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Komitea).
8. **Prekarietatea:** “Normalizat jotzen den mugatik beherako lan baldintzen menpe dauden langileek bizi duten egoera, batez ere lanagatik jasotzen diren diru-sarrerak oinarritzeko beharrak asetzen ez dituztenean” (Gaztelania Juridikoaren Hiztegi Panhispanikoa). Lanetik haratago, enplegu edo langabezia egoeran, prekarietatea segurtasun eza, ezegonkortasuna eta zaurgarritasun egoera bat da, bizitza duin eta seguru bat izateko baliabide falta, etorkizuneko egoerarekiko ziurgabetasuna eta horrek dakarren osasun mentalean eragina dakarrena. Prekarietate horren adierazgarri dira etxebizitza duin edo egonkor bat eskuratzeko aukerarik ez izatea, ezegonkortasun ekonomikoaren ondorioz epe luzera planifikatzeko gai ez izatea, bat-batean sortutako krisien aurrean babes- edo babes-neurririk ez izatea edo nahikoak ez izatea, edo gazteek emantzipatzeko eta bizi-proiektu egonkor samar bati ekiteko zailtasunak izatea.
9. **Gizarte-bazterketa arriskua:** Pobrezia eta gizarte-bazterketa tasa (AROPE adierazlea). “AROPE adierazleak pobrezia arriskuan dauden pertsonen proportzioa neurtzen du hiru dimentsiotatik: dimentsio monetarioa, dimentsio materiala eta dimentsio laborala. Gutxienez hiru baldintza hauetako bat betetzen duten etxeetan bizi diren pertsonen kopurua islatzen du AROPEk:
 1. Pobrezia-arriskua: Errenta erabilgarria (zergak eta transferentziak ordaindu ondoren) batez-beste nazionalaren (balio zentrala, biztanleriaren % 50ek

diru-sarrera handiagoa du, eta biztanleriaren % 50ek diru-sarrera txikiagoa) % 60 baino txikiagoa duten etxeetan bizi diren pertsonak dira.

2. Gabetze material eta sozial larria: pertsona batzuek ezin dute oinarritzko 13 elementuko zerrenda batetik gutxienez 7 ordaindu: besteak beste, ezin dute etxebizitza behar bezala bero mantendu edo ustekabeko gastuei aurre egin, aisialdiko jardueretan erregulariki parte hartu edo lagunekin/senideekin elkartu.
3. Enpleguaren intentsitate txikia: Azpiadierazle hau 65 urtetik beherako pertsonen dagokie. Pertsona hauek helduek batez beste, aurreko urtean lan-denboraren guztizko potentzialaren % 20 baino gutxiago lan egin zuten etxeetan bizi dira.

